

**EAE-KO GAZTE PLANAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAREN AKTA, Vitoria-Gasteiz, 2006ko azaroaren 30a.**

Partaideak:

- Miren Azkarate andrea, Kultura sailburua eta bileraren burua, Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendari Xabier Sánchez Robles jauna duela laguntzaile eta idazkari lanetan.
- Gurutz Larrañaga jauna, Kultura Sailaren ordezkaria.
- Mikel Burzako jauna, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren ordezkaria.
- Josu Sagasti jauna, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren ordezkaria (Justizia Sailburuordetza).
- Marisa Arteagagoitia andrea, Osasun Sailaren ordezkaria.
- Igor Irigoyen jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkaria (Gizarte Gaietako Sailburuordetza).
- Javier Inda jauna, Herrizaingo Sailaren ordezkaria.
- Pedro Zugasti jauna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkaria.
- Luis M^a Sautu jauna, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Alfredo Iturricha jauna, Gasteizko Udalaren ordezkaria.
- Jon Aritz Bengoetxea jauna, Bilboko Udalaren ordezkaria, Inmaculada Boneta andreak lagundurik.
- Alaitz Treserras andrea, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkaria.
- Oro Ochoa de Eribe andrea (Eusko Jaurlaritzako Gazteriako burua), Fco. Javier Gutiérrez jauna, Agurtzane Iriondo andrea, Bakarne Zuazua andrea eta Maitane Arri Escudero (Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzako teknikariak).



Zuzendaritza Batzordeko buru Miren Azkaratek bertaratutakoak agurtu eta bilerari hasiera eman dio 10:15ean.

1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.

Zuzendaritza Batzordearen 2006ko urtarrilaren 12ko bileraren aktaren zirriborroari dagokionez, Kultura sailburuak jakinarazi du, besteetan bezala, aldez aurretik bidalita dagoela eta Gazte Planaren Idazkaritzan zenbait ohar jaso direla eta karpitetan erantsi den zirriborroan txertatu direla. Adierazi duenez, zirriborro hori bilera honetan onartua izateko aurkeztu da. Zirriborroaren aldaketak ez du edukian aldaketarik edo eraginik suposatu.

Horrenbestez, aktaren testua aurkeztu da onartua izan dadin, eta sailburuak beste aldaketarik egin nahi den galdetu du. Eragozpenik egon ez denez, akta ahobatez onartu da eta sailburua gai-zerrendaren bigarren puntua lantzera igaro da.

2. II. Gazte Planaren garapenari buruzko 2005eko jarraipenaren Txostena onartzea, hala badagokio.

Kultura sailburu Miren Azkaratek adierazi du txostenak lau atal dituela eta bileraren lehen zatian lau atal horiek zehaztuko dituela:

1. II. Gazte Planaren koordinazio, sustapen eta garapenari buruzko jardueren zerrenda.
2. Egindako ekintza positiboen kopurua, eta erakundeen eta arloen araberako gastua.
3. Erakunde bakoitzak garatu dituen ekintza positiboen zerrenda eta horretan gauzatutako aurrekontua.
4. Enplegu, hezkuntza, etxebizitza eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eta II. Gazte Planeko helburuen arteko osagarritasun-maila eta koordinazio-maila aztertzen duen txostena.

Lehen puntuari dagokionez eta II. Gazte Planaren koordinazio mekanismoen baitan, Miren Azkarate Kultura sailburuak, lehenik eta behin, Zuzendaritza Batzordearen 2005eko ekainaren 20ko bilera aipatu du. Bilera hartan 2004ko ebaluazioa onartu zen.

Miren Azkaratek, koordinazio mekanismoen baitan, jakinarazi du Zuzendaritza Batzorde honek onartutako programazio eta ebaluazioen berri urtero emateko hartu duen konpromisoari men eginez, Eusko Legebiltzarraren Emakume eta Gazteria Batzordean agerraldia egitea eskatu zuela. Ondorioz, 2005eko irailaren 29an agerraldia egin zuen eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren



jarduketaren ildo nagusiak azaldu zituen, zehazki, gazte politika integralak garatzeari dagozkionak.

Gazteen Euskal Behatokiak 2005ean burututako jarduketei dagokienez, sailburuak honakoen berri eman du:

2005ean banakako 2 ikerketa beka eman ziren 30 urtetik beherako pertsonak Euskadiko gazteekin erlazionatutako ikerketak eta azterlanak egiteko. Beka horiek honako hauek izan dira: *EAEko gazte eta gazte etorkinen integrazio kulturalako espazioak* eta *Asanblearismoa Euskal Herrian. Gazteen praktika asanblearioei hurbilpen bat*.

Beken bitartez buruturiko biez gain, bost ikerketa gehiagotan jardun du. Beraz, 2005ean 7 ikerketa jarri ziren martxan:

- *Gazteen joerak - 1*
- *Gazteen argazkiak, 8. txostena*
- *Identitatearen eta politikaren kultura berri baterantz*
- *Gazteentzako Informazio Zerbitzuak Euskadin*
- *Gazteen ezaugarri soziologikoak Araban*

2005ean 7 argitalpen ere plazaratu ziren. Guztiak Behatokiaren webgunearen bitartez zabaldu dira.

- *Gazteen aukerak etxebizitza eskuratzeko*
- *Gazteen argazkiak, 8. txostena*
- *Euskal gazte lankideen bizi-ibilbideak*
- *Identitatearen eta politikaren kultura berri baterantz*
- *Euskadiko gazteria-politikaren programazio agiria 2002-2005*
- *Internet con los menores riesgos*
- *Gazte ekipamenduen definizio eta sailkapenerako proposamena*

Estatistika atalean datu base estatistikoak sortzen, kudeatzen eta artatzen jardun zuen Behatokiak. Horretarako, datuak eskatu zizkien Osasun Sailari, Herrizaingo Sailari eta Etxebizitza, Gizarte Gaietako Sailari eta, nola ez, Eustati. Prestatutako adierazle estatistikoak Behatokiaren webgunearen eta Gazteaukera.euskadi.net-en hileroko buletinaren bitartez zabaldu dira.

Gainera, Behatokiaren webgunea eta domeinua (*gaztebehatokia.euskadi.net*) Gazte Aukeran txertatu ziren. Aipatu beharra dago baita aplikazio informatiko bat garatu zela Behatokiaren webgunearen kudeaketa egiteko.

Dokumentazio Zentroaren liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean txertatuta dago. Liburutegiak dituen 3.300 aleetatik 2.840 katalogatuta zeuden 2005. urtearen amaieran. Datorren urtean funts guztiak sisteman txertatuta egongo direla espero da.



Prestakuntzari dagokionez, askotariko gaiei buruzko 14 ikastaro egin ziren: gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden gazteak, Europako Gazteria programa, Parte hartzeko heziketa eta abar. Ikastaroak EAEko gazteria teknikariei eta gazteriaren esparruan lan egiten duten bestelako eragileei zuzendurik egon dira.

Beste alde batetik, eta II. Gazte Planaren koordinazio, sustapen eta garapen mekanismoen artean, Kultura sailburuak gogorarazi du udaletan gazte politika eta EAEko gazte ekipamenduen sarea sendotzeko baliabide batzuk jarri zirela martxan toki eremuan Gazte Plana bultzatzeko xedez. Hori dela-eta, 2005ean dagokion lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek 2005ean.

Horrenbestez, II. Gazte Plana udalerrietan sustatzeko ekintzen atal honi dagokionez, sailburuak bi Lurralde Historiko horietan 2005ean tokiko planen prestakuntza eta garapenari zein Euskadiko gazte ekipamenduen sarearen sustapenari buruz erantzundako eskarien zerrenda aurkeztu du.

Arabako Lurraldeari dagokionez, 2005ean Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak 2004ko azaroaren 16an sinatutako Akordioak indarrean jarraitu du. Akordio horren bitartez, 2003ko maiatzaren 5ean sinatutako Hitzarmena indarrean mantendu eta hasiera batean adostutako aportazio ekonomikoak agortu zirenez gero, bi erakunde horietako bakoitzak bere aportazio erabilgarri osoa zuzentzeko asmoz, Arabako Foru Aldundiak bere aportazio ekonomiko propioaz erantzuten ditu udaletako eta tokian-tokiko erakundeen laguntza-eskaerak gazteriaren esparruan burutu beharreko ekintzetarako. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, Arabako Lurraldeko Koadrilen eskaerak zuzenean atenditzen ditu Arabari egokitutako 180.000 euroekin. Modu horretan, koadrila bakoitzak gazteriaren arloko zeharkako politiken plan integrala landu ahal izango du eta, beste aldetik, gazteentzako ekipamenduen sarea indartu ahal izango du.

Miren Azkarate sailburuak gazteei zuzenduriko ekintza positiboak burutzeko helburuarekin Arabako Foru Aldundiaren laguntza jaso duten udalen zerrenda erakutsi du.

Eusko Jaurlaritzaren aportazioaren kargu izan denaren berri eman du sailburuak: Gazte Plana egin gabe izan duten Arabako sei Koadriletan eskualdeko Gazte Planen bigarren fasea landu izan da, hau da, Vitoria-Gasteiz izan ezik, gainontzeko guztietan egin izan da. Izan ere, Vitoria-Gasteizek 2003an jaso zuen honetarako laguntza. Horrela, Arabako Koadrila bakoitzak tokian-tokiko gazteriaren beharrian nagusiak eta, beste aldetik, koadrila bakoitzak eta berari dagozkion udalek gazteriari zuzendu dizkieten errekurtsio guztiak biltzen dituen diagnostikoa abiapuntu gisa hartuta, 2006an Koadrila bakoitza bere Gazte Plan propioa landuz joan da.



Beste aldetik, gazteentzako ekipamenduen sareari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak Arabako udaletako eskaerak ere atenditu izan ditu zentzu honetan.

Jarraipen txostenean aztertu beharreko atalen artean 2005ean Gazte Planaren koordinazio, sustapen eta garapena dago. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, bere konpromisoak bete ditu Jaurlaritzaren Kontseiluan 2003 eta 2004ko ebaluaketak eta 2005eko programazioa onartuta. Gainera, tokiko gazte planak bultzatzeko Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien hitzarmenak eta Arabako koadrilentzako aparteko laguntzen hitzarmena finantzatzea ere onartu du.

Gazte Plana beste plan batzuekin koordinatzeari ere ekin zaio, Gazte Planaren Idazkaritzak, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren bitartez, jarraian agertzen diren organo eta planetan parte hartu duenez gero:

- Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseilua.
- Boluntarioraren Euskal Kontseilua.
- Drogamenpekotasunen Bost Urteko Plana eta Droga Menpekotasunen Aholku Kontseilua.
- Euskal Estatistika Plana.
- Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Plana.
- Pertsona ezgaituak EAEko lan-merkatuan gizarteratzeko Plana.
- Immigrazioari buruzko Euskal Plana.

2005ean Mahai Sektorialek burututako lana ere azpimarratu behar da: Bakearen aldeko Hezkuntza (Giza Eskubideen Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza) eta Osasunaren hezkuntza eta Drogamenpekotasunak (Osasun Publikorako Zuzendaritza, Droga Gaietako Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza).

Azkenik, Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren barruan, eta Administrazioa Eraberritzeko Bulegoarekin elkarlanean, Gazteukera web orriaren sustapenari jarraipena eman zaio, bereziki Gazte txartelak bultzaturiko sari eta lehiaketen bidez.

Era berean, 2005eko auzolandegietarako aurreinskripzioa Gazteukeraren bidez burutu da, bai eta Kulturako Lurralde Unitateetan izena emateko aurretiazko zitaren eskaera ere.

Bizkaiko Gazte Planaren Batzordea, bere aldetik, hirutan bildu da 2005ean: martxoaren 11n, 2004ko jarduketa ebaluatzeko eta gazte politika deskribatzeko dokumentuen balidazioa egiteko; ekainaren 27an, 2005eko ekintzen betetze-maila baloratzeko; eta azaroaren 2an, 2006ko foru programazioa aurkezteko.



Gaztedi Foroari dagokionez, bertako Batzorde Artekariaren eta Batzorde Betearazlearen lana azpimarratu du Miren Azkaratek, hala nola -udal teknikariei zuzendutako *Bizkaiko II. Gazte Topaketak* antolatu izana ere.

Bere aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere *Gazteriaren Foru Batzordearen* bitartez, 3 proposamen egin ditu sail arteko lankidetzarako akordioak ezartzeko, beti ere Euskadiko II. Gazte Planaren burutzapenaren baitan berari dagozkion ekintzen sustapena, koordinazioa eta garapenaren kontrola areagotzeko xedearekin. Sail arteko lankidetzarako akordio horiek etxebizitzaren, mugikortasunaren eta gizarte bazterkeriaren esparrukoak dira. Beste alde batetik, udal erakundeekin lankidetzan jardun du haur eta gazte politika garatze aldera.

Arabako Foru Aldundiak, aldiz, bi bilera egin ditu. Horietako lehena Rivabellosan izan zen 2005-12-02an, Añanako Koadrilaren egoitzan. Gazte Planean parte hartzen duten toki erakundeen eta erakunde amankomunen lehen topaketa izan zen. Bigarren bilera Gasteizen izan zen, 2005eko abenduaren 22an, Laudioko Udalari Gazte Planaren inguruko gaietan aholkularitza emateko.

Azkenik, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari dagokionez, nagusiki 3 eginkizun bete dira:

1. Gazte Planaren jarraipena, Zuzendaritza Batzordearen, Batzorde Teknikoaren eta Gazte Ontzien bidez, bere konpromisoan ez ezik, Planaren prestakuntzan eta bere jarraipen eta burutzapenean ere baitatza.
2. Ekintza propioen programazioa, ebaluazioa eta exekuzioa.
3. Bizkaiko Gaztedi Foroan, Donostiako Udalaren Aholku Kontseiluan eta Gipuzkoako Foru Aldundian eta bere bulego teknikoan parte hartzea.

Txostenaren bigarren atalean erakunde bakoitzak 2005ean garatu dituen ekintza positiboaren ebaluazio kuantitatiboa edo betetze-maila jasotzen da. Erakunde bakoitzak II. Gazte Planeko arloetako bakoitzean egin duen gastua azaldu da Donostiako Udalarenak izan ezik, ez baitu ebaluazioaren inguruko inolako daturik igorri.

Era berean, erakunderen batek ez ditu bidali burututako ekintza guztien ebaluazioaren datu guztiak. Arabak, adibidez, Gazteria eta Kirol Sailari dagozkion ebaluazio datuak bidali ditu bakarrik, eta bertan adierazten den bezala, ez da 2005erako programatu den ekintzetako bat ere burutu. Eta ez dakigu bertako gainerako sailek programatutako ekintzak burutu diren ala ez.

Laburbilduz, 484 ekintza positibo burutu dira, eta gastua guztira 177.185.019,64 eurokoa izan da, Donostiako Udalak egindako gastuaren datuak aintzat hartu gabe, ez baititugu ezagutzen.



Esan beharra dago, Eusko Jaurlaritzako datuen inguruan, alde txiki bat dagoela programaturako zenbatekoaren eta burututako gastuaren artean bai Lana eta laneratzea arloan, bai Hezkuntza eta lanerako prestakuntza arloan. Izan ere, ekintzak burutu eta ebaluatu diren arren, datuak falta zaizkigu programaturiko ekintza jakin batzuetan egin den gastuari buruz.

Etxebizitza arloan, ordea, programaturakoaren eta erabilitakoaren arteko aldea askoz ere handiagoa da hitu jarduketa mota hauetan:

1. Gazteei etxebizitzak errentan eskaintzeko 12.000.000 € programatu ziren eta gastua 22.380.000 €koa izan da.
2. Sustatzaileentzako laguntzak etxebizitza berriak edo zaharberrituak errenta babestuan jartzeko. Horretarako 900.000 € programatu ziren eta burutu den gastua 2.150.000 €koa izan da.
3. Etxebizitza hutsak Errentara Mugitzeko Plana martxan jartzeko 500.000 €gorde ziren. Gastaturakoa, ordea, 2.250.000 € izan da.

Gainera, azpimarratu beharra dago ekintzak burutzerakoan egin den ahalegina. Izan ere, 2004an 453 ekintza ebaluatu ziren eta 2005ean 484 ebaluatu dira. Beraz, urte batetik bestera egon den gorakada 31 ekintzakoa izan da eta hori oso kontuan hartzekoa da, batez ere betetze-maila ona denean.

Ekintza gehiago dago, beraz, gastua handiagoa da. Aurreko urteetan bezala, burututako gastuaren hazkundea ere handiagoa izan da. Izan ere, 2005ean guztira 177.185.019,64 € inbertitu dira eta, aurreko urtean (2004an), 159.323.471,42 €; hortaz, hazkundea 17.861.548,22 €koa izan da. Eta espero dezagun, gaur egun falta zaizkigun datuak osatu ondoren, emaitzak are hobek izatea.

Datu hauek azaldu eta gero, eta aurkezturiko jarraipen txostena onartu aurretik, sailburuak bertaratutakoei hitza eman die norbaitek gaiari buruz ekarpenik egin nahi izatekotan.

Edonola ere, Kultura sailburuak jakinarazi du, aurreko aldietan bezala, 15 eguneko epea emango dela akatsen bat edo egin beharreko zuzenketaren bat antzemateko edo falta diren datuak osatzeko eta aurkezturiko agiria behin betiko itxiztat emateko. Horrela, bada, ekarpen horiek jaso eta gero, dokumentua itxi egingo da, bai eta datuak faltan egonez gero ere.

Ez denez inolako esku-hartzerik egon, onartutzat eman da Gazte Planaren garapenari buruzko 2005eko txostena.

3. Gazte Planaren Enplegu, hezkuntza, etxebizitza eta informazioaren gizarteari buruzko politiken arteko osagarritasun-maila eta koordinazio-maila baloratzeko 2005eko txostena onartzea, hala badagokio.



Beste alde batetik, dokumentuaren hirugarren atalean (Gobernu Kontseiluaren 2002ko maiatzaren 28ko Akordioari bagagozkio, EAEko II. Gazte Plana onartu zuen Akordioari, alegia), enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politikek eta Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeak prestaturiko gazteria-politikak duten osagarritasun-mailari buruzko balorazioa egiten da, bai eta politika horiek II. Gazte Planean zehazturiko helburuekin duten koordinazio-mailari buruzkoa ere.

Honako puntu hauek har daitezke ondorio orokor gisa:

- Lehenik eta behin, azpimarratu behar da politika sektorial horien eta Gazte Planaren arteko osagarritasun-maila egokia dela. Izan ere, hainbatetan adierazi dugun bezala, Gazte Planaren bertute handienetako bat da gazteen beharrezko diagnostiko adostu eta zabalean oinarritzen dela. Beraz, sektorekako beste esku-hartzeetako analisiekin bat dator.
- Bigarrenik, nahitaezkoa da gazteria-politika zeharkako bilakatzen jarraitzea.
- Azkenik, ezinbestekoa da sailen arteko koordinazioa indartzen jarraitzea ere. Hori dela-eta, Zuzendaritza Batzordeak honako hobekuntza neurri hauek ezarri ditu:
 - *Mahai sektorialak sortzea*
 - *Beste planekiko koordinazioa*
 - *Programazio-Ebaluazio deszentralizatua*
 - *Gazteentzako baliabide-gida*
 - *Informazio estatistikoa trukatzeko*

Sailburuak hitza eman die bertaratutakoei eta, esku-hartzerik egon ez denez, onartutzat eman du *Enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politikek eta gazteria-politikak izan duten osagarritasun-mailari buruzko 2005eko txostena* eta gaien zerrendaren hurrengo puntuari ekin dio.

4. II. Gazte Plana koordinatu, bultzatu eta garatzeko mekanismoei buruzko informazioa.

Jarraian, gai-zerrendaren laugarren puntuaren barruan eta hurrengo jarduketak gazte politika integralaren aldeko koordinazio, sustapen eta garapen mekanismo gisa harturik, Miren Azkarate sailburuak Gazteen Euskal Behatokiak 2006an burututako jarduketan berri emateari ekin dio.

Banakako 2 ikerketa bekatarako deialdia egin da 30 urtetik beherako pertsonak Euskadiko gazteekin erlazionatutako ikerketak eta azterlanak egiteko.

2006an 6 ikerketa jarri dira martxan. Oraintxe aipatutako 2 beken bitartekoak, gehi honako hauek:

- *Gazteen joerak - 2*
- *Gazteen argazkiak, 9. txostena*



- *Euskadiko gazteei buruzko adierazle sozioestatistikoaren analisia*
- *Euskadiko gazteei eta osasunari buruzko ikerketa monografikoak*

3 argitalpen ere plazaratu dira. Guztiak Behatokiaren webgunearen bitartez zabaldu dira.

- *Gazteen argazkiak, 9. txostena*
- *Euskadiko I. Gazte Planaren (1999-2001) amaierako ebaluazioa (ale bana eman zaie bertaratutakoei)*
- *Euskadiko gazteen joerak 2006 (1)*

Estatistika atalean datu base estatistikoak sortzen, kudeatzen eta artatzen jardun du Behatokiak. Adierazle berriak sortu dira, ekipamenduei eta IKTei buruzkoak. Proiektu tekniko bat prestatu da Euskal Estatistika Planaren baitan. Adierazle estatistikoaren zabalkundea Gazteaukera.euskadi.net-en hileroko buletinaren bitartez (gazteei zuzendua) indartu egin da. Gainera, aplikazio informatiko bat garatu da datu-base estatistikoaren tratamendua egiteko eta horiek Behatokiaren webgunearen bitartez kontsultatzeko.

Dokumentazioaren aldetik, esan beharra dago hilean-hilean jasotzen diren aldizkariaren aurkibide bat sortu eta zabaltzen hasia dela Behatokia. Liburutegiak dituen 3.550 aleetatik 3.207 katalogatuta daude jada.

Prestakuntzari dagokionez, 14 ikastaro antolatu dira: gazteen osasun azturetan esku hartzeko gakoak, indarkeriari edo eskoletako *bullying* delakoari buruzko ikastaroa eta drogen kontsumoaren aurrean esku hartzeari buruzko ikastaroa. Era berean, Europako Gazteak Ekinean programari buruzko jarduerak burutu dira eta laster Gazteen Nazioarteko Mintegia Kultura eta Erljio arteko Elkarrizketari buruz burutuko da.

Kultura sailburuak gai zerrendaren bosgarren puntuari, alegia, II. Gazte Planaren emaitzen ebaluazioari, heldu dio.

5. Erakunde bakoitzaren II. Gazte Planeko emaitzen ebaluazio prozesuaren egoerari buruzko informazioa.

Miren Azkaratek jakinarazi du I. Gazte Planaren Ebaluazioa kaleratu dela, aurreko bileran adostu zen bezala. Dokumentu gisa duen garrantziaz gain, metodologia aldetik garrantzizko erreferentzia da beste esparru eta Autonomia Erkidego eta herrialde batzuetarako, jasotzen ari garen ale eskari kopurua eta piztu duen interesa ikusita.

II. Gazte Planaren emaitzen ebaluazioari dagokionez, aurreko bilkuran modu deszentralizatuan egitea adostu genuen. Hori dela-eta, *Gazte planak eta programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburuak* dakarren ereduari jarraiki (erabili beharreko emaitzen adierazleen bidez), Eusko Jaurlaritzak



ebaluazio hori gauzatzeko enkargua egin dio kanpoko aholkularitza-etxe bati, I. Gazte Planarenarekin egin den bezala.

Horri dagokionez, eginkizun horri ekiteko azterketa faseari eta aurreikusitako edukiei buruzko informazio guztia aurkeztu da. Eginkizun horren enkargua Eguía-Careaga Fundazioaren SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroari egin zaio.

Sailburuak dio ez dakiela beste erakunderen batek egiteko horri ekin dion. Izan ere, ebaluaketa deszentralizatua onartu zenez geroztik lan hori erakundeetako bakoitzari dagokio. Sailburuak lan horren berri emateko eskatu die bertaratutakoei.

Bilboko Udalaren ordezkariak hartu du hitza eta, jakinarazi duenez, Bilbon ebaluaketa bat egin zen 2005eko amaieran eta, bertatik ondorioztatutako 10 punturik garrantzitsuenak oinarri hartuta, programazio berria abiarazi da 2006rako. Horrenbestez, Bilboko Udalak badu ebaluaketa txiki bat eginda, eta bertatik Bilbon burutu beharreko lana bideratzeko hainbat datu interesgarri atara da. Beraz, Jon Aritz Bengoetxea jaunak ebaluaketa egiteko moduari buruzko datuak egon badaudela jakinarazi du eta Zuzendaritza Batzordearen eskura jarriko dituela.

Sailburuak eskerrak eman dizkio Bilboko Udalaren ordezkariari tokiko gazte plan berriaren taxuketan lagungarri suertatu den ebaluaketaren berri emateagatik. Era berean, beste erakundeetako gainerako ordezkariari eskatu die ildo bereko zerbait aurreraturik dutenean, Zuzendaritza Batzorde honen Idazkaritzarekin harremanetan jartzeko egindakoaren eta momentuan momentuko egoeraren berri emateko. Hortaz, eta edozein kasutan, zerbait berri egonez gero, Zuzendaritza Batzordeari idatziz jakinaraztea eskatu die.

6. Gazteen Euskal Legea lantzeko prozesuari buruzko informazioa.

Miren Azkarate gai-zerrendaren seigarren puntua azaltzera igaro da, geroko Gazteen Euskal Legearen prestakuntza prozesuaren egoeraren berri ematera, alegia: orain arte egin dena, zein fasetan dagoen eta aurrerantzean bete beharreko kronograma.

Aurreko bileran azaldu zen bezala, 2006ko apiriletik ekainera bitartean Gazteen Euskal Legearen lehen zirriborroa prestatzeko hasierako proposamenak biltzeko fasea burutu da, hasiera-hasieratik parte-hartzean oinarritutako metodologia erabiltzeko asmo argiarekin.

Horren aurretik, Legea lantzeko prozesua aurkeztu zitzairen, besteak beste, hiru foru aldundietako Gazteria zuzendariei 2006ko martxoaren 17an. 2006ko maiatzaren 4an aurkezpen bera egin zitzairen Autonomia Erkidegoko udal eta mankomunitateei eta EUDELI.



Uztailaren 12tik aurrera ekarpenetako bakoitza aztertzeari ekin diogu eta, ekarpen horiekin, edukien eskema orokor bat prestatu da. Eskema hori abiapuntu gisa hartuta, lehen zirriborroa idazten hasi da.

Eskema horretatik abiatuta, lehen testua prestatu da eta jasotako ekarpenak bertan txertatu dira. Horren ondoren, testu hori Gazteria Zuzendaritzaren barruan alderatu da, eta beranduago, irailean, beste autonomia erkidego batzuetako gazteria legeekin.

Irailaren 29an testu horren edukia entregatu zitzaion Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzari, hasierako azterketa bat egin zezan. Data horretatik aurrera, asteroko lan saioak izan dira Zerbitzu Zuzendaritzaren, bere aholkularitza juridikoaren eta Gazteria Zuzendaritzaren artean. Lan saio horietan testua lege ikuspuntutik zehaztuz joan da. Alderaketa hori amaitu ondoren, azaroaren 9an, testu hori artikuluen bidez taxutu da. Hurrengo pausua testua Kultura Sailaren beraren Zuzendaritza Kontseiluan bertan onartzea izan da.

Hemendik aurrera eman beharreko hurrengo pausua Eusko Jaurlaritzako beste sailekin kontsultatzea izango da, Legearen edukiak beren eskumeneko gaitan duen eragina ikusita. Legeak Gazte Planaren indarraldiko lanarena izan den izpiritu berari eutsiko dionez eta, gazte politika integralak egiteko oinarri juridikoa ezarri nahi duen legea denez, derrigorrez eskaini beharko ditu sail arteko lankidetzak mekanismoak. Hartara, adibidez, Etxebizitza Sailak etxebizitzari dagozkion eskumenak izaten jarraituko du, baina noizbait Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzaren proposamenen eta Etxebizitza Sailaren planen arteko koordinazioa eta uztartzeko modua bermatu beharko dira. Era berean, koordinazioari eta zeharkakotasunari helduta egin beharko da lan besteak beste lan, osasun, herrizaingo eta antzeko arloetan Jaurlaritzaren sail guztiekin.

Hurrengo fasea hiru foru aldundiekin, udalekin eta mankomunitateekin eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin audientzia izatean eta kontsulta egitean datza.

Azkenik, sailburuak hurrengo faseetarako gutxi gora-beherako egutegia aurkeztu du: zirriborroa gizartean zabaltzeko fasea, eztabaida irekiaren garaia eta ekarpen berrien txertaketaren aldia. Horren ondoren, legearen aurreproiektua prestatuko da eta tramitatu egingo da, Jaurlaritzaren Kontseilura eta, azkenik, Eusko Legebiltzarrerera igortzeko.

Legearen zirriborroan sartu beharreko edukien bilketari dagokionez, Miren Azkaratek bertaratzeko lantaldeetan —Gazte Ontzi direlakoetan— egindako lanaren berri eman du:

- Hiru lantalde, hiru foru aldundiak ordezkatzera joan ziren teknikariekin: 2006ko apirilaren 5ean.



- Bederatzi lantalde udal eta mankomunitateekin: 2006ko maiatzaren 23an, 24an eta 25ean.
- Lan saio bat Eusko Jaurlaritzako Gazteriako Sail Arteko Batzorde Teknikoarekin: 2006ko maiatzaren 17an.
- Gainera, hainbat bilera egin dira Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko lehendakariarekin eta koordinatzaileekin. Azkenik, berariazko lan saio bat egin zen ekainaren 19an Gazteen Euskal Behatokiaren egoitzan Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren proposamenak biltzeko.

Proposamenak bildu dira on-line, eta bai Gazteukera atari gaztearen bidez bai Gazteen Euskal Behatokiaren webgunearen bidez Legea lantzeko prozesuari buruzko informazioa emateko sortu den web-orrirako esteka bat egin da. Bertan, gainera, blog bat txertatu da, bai eta gizarte-eragileei zuzendutako galdetegi bat ere.

Proposamenak on-line bildu baino lehen, publizitate kanpaina bat egin zen ekarpenak biltzeko espresuki sortu den bloga ezagutzera emateko eta gazteei eta, oro har herritar guztiei, parte hartzeko gonbita egiteko.

Beste alde batetik, gazteekin erlazionaturik dauden gizarte eragileen ekarpenak errazago jasotze aldera, gizarte eragileentzako galdetegi/gida bat eskura jarri dugu on-line. Galdetegi horretan legea lantzeko prozesuko eztabaidaren muinean egon diren gai nagusiak aipatzen dira.

Ekarpenak bildu eta gero, horien sistematizazioari ekin diogu, hobeki aztertzeko eta, Legearen lehen zirriborroa prestatzerakoan, ekarpenak errazago txertatu ahal izateko.

Miren Azkaratek sintesi hori bertaratutako pertsonen artean entregatu diren dokumentazio karpetetan dagoela jakinarazi du, hain zuzen ere *“Gazteen Euskal Legea lantzeko prozesua. Proposamenen hasierako bilketaren fasea. Gazteen Euskal Legea lantzeko gogoeta prozesuaren ondorio nagusiak. 2006ko uztailaren 12a”* izeneko agirian. Dokumentu horretan Eusko Jaurlaritzako sailtako, foru aldundietako, udaletako eta mankomunitateetako ordezkariak osatutako lantaldeetako ekarpenak biltzen dira. Era berean, gizarte eragileek Internet bidez igorritako hausnarketak, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eginiko hasierako proposamena eta blogaren bitartez lortu diren ekarpenak erantsi dira dokumentuan.

Horiek horrela, Legearen oinarrizko edukien barruan hiru arlo nagusi bereiz daitezke, gazteek eurek prestatutako Gazteen Eskubideei buruzko Adierazpenean jasota daudenen garapena, azken buruan:

1. *Emantzipazioa*: Arreta integrala gazteen egoerari (lana, prestakuntza, etxebizitza, osasuna, kultura).
2. *Gaztetasunaren sustapena*.



- Gazte-ekipamenduak eta zerbitzuak
- Lanbide-profilak eta boluntarioak.

3. *Gazteek parte hartzeko bideak.*

Legearen zirriborroan sartutako edukien eskema laster emango da ezagutzera eztabaidatua izan dadin.

Sailburuak, proposamenen bilketari dagokionez, jakinarazi du hiru atal nagusi bereiz daitezkeela:

- Zeharkako gazte-politikaren sustapena.
- Berariaz gazteei zuzendutako programa, ekipamendu eta zerbitzuen sustapena.
- Gazteen partaidetzaren sustapena.

Atal horietako bakoitzean euskal instituzio publikoen aldetik beharrezkoak diren eginkizunak eta tresnak zehazten dira.

Miren Azkaratek legearen zirriborroaren edukiak azaldu eta gero, bertaratuei hitza luzatu die eta zalantzarik dagoen galdetu.

Abagune horretan Arabako Foru Aldundiaren ordezkari Luis M.^a Sautuk hitza hartu du eta iritzi du, gainerako foru aldundiek bezala eta Legearen aplikazioak, geroko garapenak edo funtzionamendua dela-eta izan dezakeen eragina aintzat hartuta, aldundiek legearen zirriborroa lantzeko prozesuan izan duten partaidetza oso txikia izan dela. Prozesuak aldundiekiko harreman handiagoa eskatzen zuen, eta harremana urria eta eskasa izan da. Era berean, espero du aldundiek, aurrerantzean, lehen zirriborroa landuta egon eta gero, gehiago parte hartu ahal izango dutela eta beren kezka hein handiagoan adierazi ahal izango dituztela.

Miren Azkaratek erantzun dio ulertu egiten duela aldundiek senti dezaketena, baina Jaurlaritzak hasieratik azaldutako metodologia jarraitu duela urratsez urrats. Izan ere, lehenengo fasean kontaktuak aldundiekin egin ziren eta Miren Azkarate bera foru diputatuekin bildu zen lanerako lehenengo bilerei eta ekarpenak jasotzeari ekin aurretik. Hortik abiatuta, agerikoa da lehen zirriborroa lantzeko ardura nork duen. Bertan ikusiko da nola jaso diren eginiko ekarpenak eta nola uztartu diren gure ustez Gazte Planarekin burutzen aritu garen lanari jarraipena emango lioketen atalak eta edukiak.

Laster, lehen zirriborroa prest daukagunean hasiko dugu kontrasterako bigarren txanda. 2007ko urtarrila edo otsailean Legearen lehen zirriborroaren gainean nahi beste alegazio eta ohar egiteko bigarren aldi bat egongo da. Horren arabera bigarren zirriborroa landuko da. Baina ezinezkoa da kontrasterako bide bat etengabe irekita edukitzea eta titulu baten zirriborroa idazten den bakoitzean aldundiekin kontrastatzea, ez baita horrelakorik egin Jaurlaritzaren



gainerako sailekin ere. Beraz, prozesu osoan kontrasterako bi aldi egongo dira. Beste modu batera ere egin genezakeen, alegia, zirriborroa geuk landu, entzuketa aldi bat ireki, itxi eta kitto. Baina berretsi nahi du prozesua taxutu eta beranduago Zuzendaritza Batzorde honetan onartu bezala joan dela.

Jakina, lege guztietan, baina honetan bereziki, Jaurlaritzak erakunde bakoitzaren —bai udalen bai foru aldundien— eskumenekiko errespetua bermatuko du bereziki, Autonomia Estatutuan eta Lurralde Historikoen Legean ezarritako eskumen-banaketari men eginez, hori baita jarduketaren esparru juridikoa. Ezar zitezkeen ohiturak bestelako kontua dira. Baina alderdi juridikotik, erakunde bakoitzarentzat ezartzen den eskumen-esparruari dagokionez, gai bakoitza behar bezala jasota geratzeaz arduratuko gara.

- **Galde-eskeak.**

Sailburuak hitza eman du berriro ere, baina ez dago galde-eske gehiagorik eta, horrenbestez, bertaratu izana eskertu die eta gabon onak eta urte amaiera ona opa dizkie partaideei.